

MATERIALISMO HISTERIKOA

Turista gara



UXUE APAOLAZA LARREA

Garai bakoitzak bere tenpluak ditu, botereak unean-unean jendeak zer gurtu behar duen erabaki duenaren araberrakoak. Normalean, pertsonaren neurriak soberan gainditzen dituztenak, gora begiratzera garamatzatenak. Katedralak jainkoa bazen, ministerio neoklasikoak botere laikoagoak baziren, fabrikak lana bazen... Ondotik pasatzean handitasuna suma daiteke, zu zeu goratzen transzendentzia horren norabidean bazoaz, izutzen norabidez aldatuta bazabiltza. Turismoak horiek guztiak berrerabili ditu, esanahiz aldatuta, eta berriak eraiki, museoak kasu, Guggenheim, adibidez.

Hogeita bost urte bete ditu tenpluak, eta isildu dira momentuan ere erridikulutzat jo ziren kritikak, erridikuluak izaten baitira botereari komeni ez zaizkion gogoetak. Kostua aipatzen zen, Kultura sailetik ordaindutakoa; euskal kulturaren neurriko museoa ote zen galdetu zen, zertarako itaundu zen... Eta erantzuna zaplazteko moduan eman zen, eta ematen da. Izan ere, museoa arrakastatsua izan da: soberan bete ditu promotoreen asmoak. Bilbo ez da lehengo Bilbo, diote, museoari esker. Tenplua ez baitzen gure neurria egin behar, gure neurria gora baizik, transzenditzeko, gora begiratzeko, botereak une horretan, eta honetan, sinestu behar dugunari buruz erabaki duenaren norabidean.


Eta sinetsi behar duguna ez da artea, ez zaigu arrakastaren berri kontzeptu artistikoen bidez ematen, orain euskaldun batek arteaz lehen baino gehiago dakiela esanez, orain gure burua irudikatzen dugun potentzialaren neurrien bidez. Datu ekonomikoak ematen zaizkigu, inbertsioa berdindu baino gehiago egin baita, turismoari esker. Tenpluaren ondotik pasatzen garenean, katedral baten ondoan bezain txiki gara, erlijioa etxe atariraino ekarrita.

Ez dugu hegazkinik hartu beharrik, azkenik, turista gara gure kaleetako espaloietan ere. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Erraustegia

Ura drainatzeko baimendu gabeko tutu bat ezarri zuen Zubietako erraustegiak, eta Zubieta inguruko uren kutsaduraiturri dela salatzen dute eragileek. Ikuskariak prebrikazioa egin ote duen ikertzea eskatu du 3fiskaltzak, legez kanpoko praktiken berri zuelakoan.

Greba

Soldaten emendioa eskatzeko eta Frantziako Gobernuak petrolio findegietako grebalariek errekluzionatu izana salatzen greba orokorra egin dute Ipar Euskal Herrian. Baionan izan da mobilizazio nagusia, 2.000 lagun inguru batu dira.

